

“Kerja” - Funtsezko elkarteak

Gure enpresa arrakastatsua izan dezan zenbait erakunde, instituzio edo enpresekin elkarteak sortu behar ditugu. Garrantzitsuenak ikastetxeak, saltoki txikien elkarteak, udalak eta zerbitzari enpresaren bat dira.

Ikastetxeekin harremanetan jartzean lan egin nahi duten ikasleekin kontaktuan jar gaitzke. Horretarako, hitzaldiak eman ditzakegu, eskuorriak banatu edota QR-kodeak ikastetxeetatik eskegi.

Beste alde batetik, saltoki txikien elkarteekin harremanetan jartzean, eskuragarri izango ditugu gazteentzako aproposak diren eta aske dauden lanpostuak. Gainera, udalek betetzeko dauden enpleguen zerrendak eman diezazkigukete.

Azkenik, zerbitzari enpresa bati esker gure app-a publikatu dezakegu, jendeak ezagutu dezan.